

## Paroa erdira jeitsi da Hernanin azkeneko 10 urteotan

■ Duela 10 urte 2.400 langabetu zeuden eta orain 1.175 daude ■ 1.175 horietatik 774 dira iaz inongo lan ordaindurik egin gabeak ■ Lanean ari direnetan, berriz, 6tik 1 zerbitzuetan edo industrian ari da.

HERNANIKO langabezi tasa erdia pasa jeitsi da azkeneko 10 urteotan, INEMeko datuek erakusten dutenez. 1991an 2.395 pertsona apuntatu zen lan eske INEMek Lasarten duen bulegoan. 2001ean, berriz, 1.175 hernaniar apuntatu dira. Langabezi tasa, berriz, poblazio aktiboaren % 9 inguruan dabil. 1986an, Orbegozoren krisi garaitan, hernaniarren % 27 zegoen lanik gabe.

Langabetu kopuruari buruzko datuetan bereizketa bat egin behar da, INEM-ek bere egiten duen bereizketa. Espainiako Lan Institutuak bi irizpide darabilzki langabetuak sailkatzeko: langa-

betu batzuk dira inongo lanean ez dabilzanak, eta besteak han edo hemen orduren batzuk sartzen dituztenak. 1991an 1.500 pertsona izan ziren Hernanin inongo lanik ez eta INEMera jo zutenak. 2001ko urte bukaeran 774 izan ziren.

**Iaz langabezia igo egin zen** Espainiako Lan Institutuaren datuek erakusten dutenez, paroa gora egin zuen Hernanin. Aurreneko hiru hilabeteetan 752 lagun apuntatu ziren INEMen. Ekainera bitartean, 719, eta hori izan da langabezia tasarik bajuea. Irailean 736 izan ziren eta abenduan 774.

**Emakumeak gehiena** Emakumeak dira Hernanin langabezia gehiena nozitzen dutenak, bai duela 10 urte eta bai orain. 1991an, inongo lanik ez zuten 1.500 pertsonatik 852 ziren emakumeak, eta 642 gizonezkoak. 2001an, 774tik 475 dira emakumeak eta 299 gizonak. INEMen apuntatuta dauden guztiak kontuan hartuta, berriz, gaur egunean 1.175etik 717 emakumeak dira eta 458 gizonezkoak.

Adinari begiratuta langabezia beranduago dator. 1991an, 20-30 urte bitarte hori zen langabetu gehienekoa. Orain, 25-35 urte bitarte hori da afektatuena.

**% 91 kontratu tenporalak** Gaur egunean 10 kontratuetatik bakarra da fijo; gainera, hor sartzen dira ebentual hasi eta gero fijo egiten direnak ere. Berez, Gipuzkoa mailako datuak dira, baina, Hernanirako ere erreferentziagarria izan liteke.

**Zerbitzuetan eta industrian** Hernanin 6.200 pertsona inguru dira populazio aktibo kontsideratzen dena. Eustat-eko estatistika datuen arabera, 6.200 langiletatik 3.500 zerbitzu sektorean ari dira lanean, eta 2.100 industrian. 515 pertsona eraikuntzan dabil, eta 100 inguru, berriz nekazaritzan. □

### IRRATI ASTEA

#### Mariano Ferrer-i elkarrizketa gaur

MOLOTOFF Irratiak Mariano Ferrer kazetari ezaguna elkarrizketatuko du gaur, 16:00etan, Irrati Astearen barruan. Bihar, asteartea, Jose Mari Pastorrek hitzaldia emango du Biterin *Komunikabideen manipulazioa Nazioartean* gaiaren bueltan. Asteazkenean euskal komunikazio esparruari buruz beste hitzaldi bat, Edorta Arana eta Josu Amezagaren eskutik. Ostegunean eta ostiralean ere izango dira ekitaldiak.

Irrati Astea bukatzeko Molotoffek barrikotea antolatu du Arizmendin larunbaterako. Txartela erreserbatzeko: 943-331731. Barrikotea 16 euro da. □

### BOLEIBOLA

#### UPV Hernanik erraz irabazi zion Harori

HAMASEIGARREN garaipena lortu du segidan Hernanik. Haroko taldearen bisita jaso zuen eta hernaniarrek erraz menderatu zuten, 3-0. Datorren astean Kantabriara dijoaz eta beste garaipen bat lortzea dute helburu. Matematikoki ez bada ere, liga eskuetan du UPV-Hernanik, eta gelditzen diren partiduak pasa eta igoyerako Play-Offetan pentsatzen hasiak dira. □

### WATERPOLOA

#### Bi partiduak irabazi

ASTEBURU borobila izan dute herriko Waterpolo taldeek. Emakumeen taldeak garaipen garrantzitsua lortu zuen Santofiaren kontra 11-5 Euskal ligan. Garaipen horrek azken postua uzteko balio die. Mutiletan, berriz, A taldean Azpeitiko Izaraitzi erraz irabazi zion 6-26, Gipuzkoako Ligako partiduan. Liga honetan lehen postuan dijoaz hernaniarrak. □



Umeak beren lanak erakusten, Latsunbeberriko tailerlean.

#### Ume asko ibili da auzoetako tailerretan

AUZOETAKO tailerretan 100 umetik gora apuntatu dira eta aurreneko astean harrera ona izan dute. Tailerrak begiraleek zuzentzen dituzte eta era askotako aktibitateak egiten dituzte.

Berez, apuntatzeko epea egon da, baina, izenik eman ez duenak oraindik ere eman lezake, tailer irekiak baitira. Begiraleek Kronikari esan diotenez, lehenengo egunean, artean ere, gurasoak etorri ziren tailerrak zer ziren eta apuntatzeko zer egin argibide eske.

Tailerrak astero egun berean egiten dira, 18:00etatik 20:00etara, eta auzoko baino gehiago zonenak daude banatuta. Astelehenean Ereñotzun dira; ostegunetan Latsunbeberri eta Portun; eta ostiralean Zikuñaga, Antziola eta Floridan. □

hkronika.com  
KRONIKA INTERNETEN

PROCOLOR ZENTRUA  
Landaribar, s.l.  
Pintatzeko ekipoa  
Industri eta dekonazionarioko pinturak  
Pintatutako paperak  
Kardaberaz 45 - Tel. 943 552131 - HERNANI

PUTZUETA  
HARATEGIA - URDAITEGIA  
Kardaberaz 39  
Tel: 943 55 27 87  
20120 HERNANI

BERTAKO FRUTA ETA BARAZKIAK  
Ezkerro  
Fruituak  
Antziola 2  
20.120 HERNANI  
Bertako produktuak  
Fruitu exotikoak  
Telefonoz eskatzeko:  
943 33 32 75  
Orain helbide berrian  
gaituzu:  
ANTZIOLA 2

SAN VALENTIN  
Cupidorekin zita  
Opariak neska eta mutilentzat  
ZATOZ IKUSTERA  
EGUZKI PERFUMERIA  
Kale nagusia 45 - Tel. 943 551 333 - HERNANI

EGUZKI  
Zure denda

EGUZKI  
PERFUMERIA

Gure dendan,  
behar duzun guztia  
daukagu.

- Perfumeria
- Opariak
- Boutique
- Edertze gela
- Solariuma

## INAUTERIETAKO KONPARTSAK



Ttaria dantza taldeko konpartsa Plaza Berrian bere saioa egiten. Ertzean, jendetza.

## Imaginazioa, umorea... eta lana!

■ Eguraldi ederrak lagunduta, kaleak jendez gainezka izan ziren ■ Gaur: Axeri dantza, 10:00; eta berbera Biteriko plazan 17:00; ■ Bihar, Sardinaren entierroa, 18:30;

KONPARTSEK oso ikusizun polita eta atsegina eman zuten atzo, kaxkoan barrena urteroko desfilea eginez. Langile ikastolako konpartsa atera zen aurrena. Langilek pertsonaia mitologikoen bueltan antolatu zuen konpartsa: jainkosak, kobazuloak, aztia pozima egiten... Ttaria dantza taldearena zetorren gero: dutxan, kantatu ahala gorputza nola erakutsi ziguten.

Ttariako konpartsaren on-

doren, *Antilletako bohioa*, Inmaculada ikastetxekoa. Bizimodu eta erritmo karibeñoak ekarri zituzten Hernanira. Eta desfilea bukatzeko, Antilletatik Mexikora. Elizatxo ikastolak *La Cabina de la Lupita* jarri zuen. Jendetsuenetako bat izan zen, konpartsaren aurretik eta atzetik jendea zutela.

Desfileak ia ordu eta erdi iraun zuen eta jendetza haundia bildu zen.

### Mozorro gaua

Larunbat gauean jende asko ibili zen mozorrotuta: batzuk asto eta guzti, beste batzuk kotxe zahar batean, eta herri jendez disfrazatutakoak ere baziren: bat Irigoyen medikuaren aurpegi berdinarekin zebilen eta beste bat Aralarko Pepez jantzita, kaja karraio. Bestalde, larunbat arratsaldeko disfraz lehiaketan sei talde atera ziren *Samba* taldeak irabazi zuen. □



Langileko aztia pozima egiten.



Elizatxoko mexikanoak.



Inamuculadako Antillen grazia.

## Txirtak Txantxangorri eskatu dio uzteko tiro txapelketa Santa Barbaran egiten

TXIRTA T.O.K.E. Elkartek, Tiroko Gipuzkoako Kopa Hernanin izatea eskatu du. Lehiaketa honen legeen arabera, aurreko urteko irabazleak eskubidea du hurrengo edizioa non jokatu erabakitzeko.

Iaz Ion Aspiazu txapeldun Iazko edizioa Txirta Elkarteko Ion Aspiazuk irabazi zuen, eta

honek aurtengoa Hernanin izatea eskatu du. Horretarako Txirtak Txantxangorri eskaria egin dio, Santa Barbarako instalazioan 2002ko Gipuzkoako Kopa jokatu ahal izateko. Iazkoaz gain, beste bi urtetan irabazi dute hernaniarrak Gipuzkoako Kopa, 1996ean Aspiazu berak eta 2000an Luis Mari Zerainek. □



Luis M. Zerain eta Ion Aspiazu.

## MUS TXAPELKETAK

### Elur Txorin finalak, aste honetan

ELUR TXORIKO mus txapelketa iritsi da azkenera. Asteazkenean, banakako finala jokatuko da eta ostegunean bikotekakoa.

Mus txapelketako sariak datorren larunbatean banatuko dira, Elur-Txoriko urteurren afarian.

Txantxangorri, banakakoa Txantxangorriko txapelketa ere ari da jokatzen. Aste honetan, banakako txapelketako lehen kanporaketa jokatuko da:

ASTEAZKENA	OSTEGUNA
<b>3/4 posua</b>	<b>3/4 posua</b>
Aierdi / Esnal	Gaztañaga-Otegi
	Martinez-Sanz
<b>Finala</b>	<b>Finala</b>
Txabon / Bilbao	Apaolaza-Peli
	Ormazabal-Bilbao

ASTEARTEA, otsailak 12
<b>Bixente Goikoetxea / Mami Loizab</b>
J.M. Goikoetxea / Juan Otaegi
Javier Oscoz / Pablo Ruiz
ASTEAZKENA, otsailak 13
<b>Carlos Lopez / Miguel Montenegro</b>
Juan Larrañaga / Bixente Goñi
Juan Urruzola / Fernando Galan
OSTEGUNA, otsailak 14
<b>Luis Garayar / J. Maria Tijero</b>
Daniel Carrera / J.M. Ormazabal
Joxe Etxarri / Lucas Lopez

## Gaur zabalduko da frontoian ordua hartzeko lista

■ Apuntatzen diren guztien artean zozketa egingo da, asteko eguna eta ordua erabakitzeko.

KIROLDEGIKO frontoiko orduak urtero zozketa eman behar da eta alkilerren 26ean izango da, eta izen korronteko zenbakia utzi ematea otsailaren 11tik 25era. behar da. □

## KIROLA -ASTEBURUKO EMAITZAK-

FUTBOLA	TALDEAK	PELOTA	PELOTARIAK
<b>Gorengo</b>	<b>Hernani 3 - Hondarribia 2</b>	<b>E.H. Txap</b>	<b>Finalerdietako 1. partiduak</b>
<b>Gazt. L.Naz.</b>	<b>Erromo-Hernani</b>	Pal.gom.jub.	Auñamendi 30 / Hoz-Lujanbio 15
<b>Gazt. Ohor.</b>	<b>Aloña Men.4-Hernani 0</b>	Pal.gom.jub.	Auñamendi 30 / Burutar.-Valero 9
<b>BOLEIBOLA</b>	<b>TALDEAK</b>	Esk.bin.jub.	Zazpiterri 22 / Alvarez-S. Seb. 11
<b>1. Auton.</b>	<b>UPV Hernani 3 / Haro 0</b>	Pal.goma	Luisando 16 / Manzis.-Martinez30
<b>ERRUGBIA</b>	<b>TALDEAK</b>	Errermoneta	Agilar-Juaristi 40 / Ilunpe 25
<b>Sen.1maila</b>	<b>Hernani 7 - Ordizia 54</b>	Udab.Txap	
<b>Jub.Euskal</b>	<b>Hernani 31 - Mungia 0</b>	Eskuz inf.	Ojuel-Fernandez 18 / Zurriola 8
<b>WATERP.</b>	<b>TALDEAK</b>	Eskuz kad	Erdozio-Zurutza 22 / Lazkao 4
<b>E.H.Lig.Nes.</b>	<b>Hernani 11 - Santoña 5</b>	Esk.bin.jub.	Irazustab.-Leonet 13 / Añorga 22
<b>Gipuzk. liga</b>	<b>Izarraitz 6 - Hernani A 26</b>	<b>MAHAI T.</b>	<b>TALDEAK</b>
<b>Gipuzk. liga</b>	<b>Hernani A-Hernani B</b>	Liga Aut.	Etxadi B.M. Easo 4 - Hernani 0

### HERIOTZAK

**Adolfo Gomez Garcia**  
Ilgandean hil zen 77 urte zituela

Hileta elizkizuna gaur, astelehena, arratsaldeko zazpitan Juan Bataiatzaile Parrokian

### ESKERTZA

**MARTIN IDARRETA GOÑI**

Idarreta-Mendiola sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, egun hauetan Martin eta bere familiari maitasuna adierazi diguzuen pertsona eta talde guztie.

GUZTIAGATIK MILA ESKER.

Hernanin 2002ko otsailaren 10ean.

### ZERBITZUAK

<b>☎ TELEFONOAK</b>	<b>✚ FARMAZIAK</b>	☛ Gaeuz: Arzallus Andoain Plazaola 17 ☎ 943 591514
☛ Taxiak: 943 550093	☛ Egunez: Etxebeste Elkano 2 ☎ 943 552087	<b>✚ ASTEAZKENA</b>
☛ Udaltzaingoa: 943 333288	☛ Gaeuz: Ansa Andoain - G. Ondarreta ☎ 943 591302	☛ Egunez: Bulnes Etxeberri ☎ 943 557738
☛ DYA: 943 464622	<b>✚ ASTEARTEA</b>	☛ Gaeuz: Diaz Andoain - Nagusia 19 ☎ 943 592057
☛ Anbulatorioa: 943 557750	☛ Egunez: Sagastiberri Urbieta 7 ☎ 943 552941	
☛ Jokalari anonimoak 943 331103		